


Euskal AEko industri jarduera %4,1 hazi zen 2005eko irailean

2005eko lehenengo bederatzi hilabeteko bilakaerak %2,7ko hazkundera izan zuen, 2004ko aldi beraren aldean

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2005eko irailean, lan-egutegiko termino homogeneotan %4,1 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2004ko hil beraren aldean. Datu horrek berretsi egin zuen urtearen bigarren hiruhilekoan nabaritu zen industri jardueraren susperraldia, eta urtearen lehenengo bederatzi hilabeteetan %2,7ko hazkundera eragin zuen, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Hilabete arteko datuak alderagarriak izan daitezzen urtaroen eragina zuzenduta, 2005eko irailean %0,6 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin alderatuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua



Iturria: Eustat

Sektore-bilakaera

Sektoreka, produtzitako ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, 2005eko iraileko indizearen bilakaerak honako aldakuntzak izan zituen, 2004ko irailaren aldean: urte arteko aldakuntza-tasarik handiena *ekipo-ondasunek* (%6,7) lortu zuten, jarraian, *kontsumo-ondasunek* (%5,0): %8,0 hazi ziren *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* eta %0,3 murritu *kontsumo-ondasun iraunkorrak*. *Bitarteko ondasunak* neurritsuago igo ziren %3,2ko tasara eta *energiak* %0,2 egin zuen atzera, urtebete aurreragoko egoeraren aldean.

2005eko lehenengo bederatzi hilabeteen metatutan, *ekipo-ondasunak* %5,6 hazi ziren, *bitarteko ondasunak* %1,7, *energia* %1,9 eta *kontsumo-ondasunak* %0,3; azken horien barruan, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %0,4 hazi ziren, baina *kontsumo-ondasun*

iraunkorrak (%0,0) ez ziren mugitu; guzti-guztiak 2004ko lehenengo bederatzi hilabeteekin alderatua.

2005eko abuztuaren aldean, 2005eko iraileko hil arteko aldakuntza bestelakoa izan zen industri sektore handietan. Hil arteko hazkundea izan zuten *ekipo-ondasunek* (%5,2) eta *kontsumo-ondasunek* (%3,8); *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %1,7 hazi ziren eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %4,8. Gainerako sektore guztiek jaitsierak izan zituzten. *Energiak* %1,6 egin zuten atzera, eta *bitarteko ondasunek* %1,4.

Bilakaera lurralde historikoaren arabera

Lurralde historikoei dagokienez, iraileko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan ziren lurralde guztietan: %4,7 hazi zen Gipuzkoan, %3,9 Araban eta %3,8 Bizkaian.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasen (2005eko iraileko datu desestazionalizatuak, urte bereko abuztuaren aldean) bilakaerak desberdinak izan ziren hiru lurraldetan: %1,3 hazi ziren Gipuzkoan eta %1,0 Araban, baina %0,3 jaitsi Bizkaian.

Taula: 2005eko IRAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	ira05/ira04	At/At-1 (1)	ira05/abu05	abu05/uzt05
Indize orokorra: Euskal AE	4,1	2,7	0,6	-0,6
Araba	3,9	1,5	1,0	1,0
Bizkaia	3,8	2,5	-0,3	-0,5
Gipuzkoa	4,7	3,6	1,3	-1,6
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	5,0	0,3	3,8	-3,6
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-0,3	0,0	1,7	-6,2
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	8,0	0,4	4,8	-2,3
Ekipo-ondasunak	6,7	5,6	5,2	-4,7
Bitarteko ondasunak	3,2	1,7	-1,4	2,5
Energia	-0,2	1,9	-1,6	-5,8

(1) t urteko urtarrietik azken hilera arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi berdinen aldean

Iturria: Eustat

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 e-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp